



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Gernikako Arbolearen leinu historikoari jarraipena emongo deutso udabarritik aurrera beste landare batek

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 15ean

Zoritxarrez, azken hilabeteotan Bizkaiko Batzar Nagusiek martxan jarritako neurriak ez dira nahiko izan Gernikako Arbolearen egoera bereonertzeko, eta hatakotzat orain egon dan haretx gaztea guztiz igartu da. Adituek egin daben azken azterketeak erakutsi dau landarea “gutziz igartuta” dagoala. Arboleak ezin izan dau ura hartu ez eukalako energiari ezta erreserbarik be, sustraiak oso kaltetuta izan ditualako eta negua etorri dalako. Arrazoi guztiok dirala-ta, landareak ez dau erakusten inongo bizi-arrastorik daukanik.

Basalan enpresako teknikariei eta Euskal Herriko Unibertsitateko Landareen Biologia eta Ekologia Sailari eskerrak emon ondoren, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak bere samina erakutsi dau hartu diran neurriak “ez dabelako emoitza onik ekarri” eta iragarri dau Gernikako Aretxaren leinuko beste oinordeko bat sartuko dala Gernikako Batzarretxean eta “prest egongo dala datorren udabarrirako”. Datozan asteotan egingo dira horretarako lehenengo lanak, lekua prestatzeko eta hilabete batzuk barru “euskal askatasunen ikur horrek bizirik jarraitu dagian, eta ernabarritu daiten udabarrian”.

Gernikako Haretxaren egoera kezagarria ikusita, Bizkaiko Batzar Nagusiek presazko neurriak hartu ebezan joandako abuztuan, Gernikako Batzarretxaren esparruan kokatutako 28 urteko landarearen egoera egonkortu eta bereonertu ahal izateko. Horretarako, bada, arbolearen kontrolaz eta jarraipenaz arduratu dira Euskal Herriko Unibertsitateko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko eta Basalan basogintza zerbitzu enpresako adituak, eta eurok izan ziran irailan esan ebene haretxa nahiko egoera kezagarrian egoala.

Gernikako Arbolearen egoera kritikoa zan sustraiak oso kaltetuta eukazalako. Urteetan egon da sustraiak hedatu ezinik lurra urez saturatua egoalako, eta hori dala-ta anoxia pairatu izan dabe sustraiak, sustraien fisiologia erabat kaltetuz. Horrek eta argitasun gitxiko lekuan egoteak, baita 2013. urtean euri asko egin izanak be, sustraien sistemea gero eta gehiago kaltetu dabe, eta azkenean arbolearen fisiologia bera eta hasteko eta adarrak zabaltzeko gaitasuna be kaltetu dira.

Azken azterketea egin jakonean zehaztasun osoz begiratu dira arbolearen adar guztiak, behetik hasi eta goraino, eta sustraiak. Teknikariek ikusi dabe guztiz igartuta dagoala, adarren eta enborraren barrualdearen kolore marroiak edo adarren eta sustraien malgutasuna galdu izanak erakusten dabenez. Horrezaz ganera, ongarririk xiringa bidez sartzeko egin jakon zuloak be ez dau erakusten sendatu izanaren inolako arrastorik. Teknikariek ikusi dabe be ez dauela sustrai barririk bota, eta laborategira eroandako laginek ez dabe erakutsi bizi-arrastorik dagoanik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Un nuevo retoño simbolizará en primavera la estirpe del histórico Árbol de Gernika

Bilbao, a 15 de enero de 2015

Lamentablemente, las medidas de choque puestas en marcha desde las Juntas Generales en los últimos meses para mejorar la salud del Árbol de Gernika, no han sido suficientes para salvar la vida del joven roble. El último muestreo realizado por los expertos ha determinado que el ejemplar está “completamente seco”. El Árbol no ha podido absorber agua y nutrientes por la falta de energía y de reservas. La grave degeneración de su sistema radical y la llegada del invierno, ha provocado que no se encuentren ya evidencias de vida en su tejido vegetal.

Después de agradecer el trabajo de los técnicos de Basalan y del Departamento de Biología Vegetal y Ecología de la Universidad del País Vasco, la presidenta de Juntas Generales, Ana Madariaga, ha sentido que las medidas aplicadas “no hayan dado resultados satisfactorios” y ha anunciado que un nuevo retoño de la misma estirpe del Árbol de Gernika “estará listo para la próxima primavera” para su plantación en la Casa de Juntas. En las próximas semanas, los operarios realizarán las primeras labores para preparar el terreno y, así, ver como en unos meses un nuevo ejemplar “sigue simbolizando las libertades vascas”, ha dicho.

La delicada situación del Roble de Gernika llevó a las Juntas Generales de Bizkaia a tomar en agosto del año pasado una batería de medidas urgentes para estabilizar y mejorar el estado de este ejemplar de 28 años de edad presente en la Casa de Juntas de Gernika. Expertos del Departamento de Biología Vegetal y Ecología de la UPV/EHU y de la empresa de servicios forestales Basalan, que han llevado el control y seguimiento del árbol, ya advirtieron en septiembre, en otra comparecencia pública, que el ejemplar estaba bastante debilitado.

La situación del Árbol de Gernika era crítica debido al deteriorado estado en el que se encontraba su sistema radical. Durante años, sus raíces han intentado desarrollarse en un suelo desestructurado, sin capacidad de drenar y totalmente saturado de agua, lo que ha sometido al árbol a un crecimiento en condiciones de anoxia que ha alterado gravemente la fisiología de la raíz. Estas condiciones, unidas a que el ejemplar se sitúa en una zona sombría y a la fuerte pluviosidad de 2013, ha causado una degeneración progresiva del sistema radical y ha acabado por afectar también gravemente a la fisiología y el crecimiento de la parte aérea.

En la última revisión se comprobó al detalle todas las ramificaciones del ejemplar, tanto de su parte aérea, desde la parte inferior hasta la copa, como sus raíces. Los técnicos encontraron evidencias de la completa desecación del árbol, como el color marrón del interior de ramas y tronco o la pérdida de flexibilidad de ramas y raíces. Además, el agujero de inserción realizado para la inyección vía xilema de diversos productos fertilizantes, no presentaba ningún signo de cicatrización. Los técnicos comprobaron que tampoco había generación de nuevas raíces y las muestras de laboratorio no encontraron evidencias de vida en el tejido vegetal.